

IRITZIA

Nieves Loiola

GEHIGARRIA

Kale zulotik baserrera

BERBETAN

Maite Solozabal
itzultzailea

KULTURA

Haizea Emakume
Taldeak antolatutako
ekintzak

BARREN

1998ko martxoaren 6a
VI. urtea - 228.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Emakumeak
futbolean

**Gizonen
terrenoa zapaltzen**

“Emakumea galduta dago gizonezkoak jartzen dizkion mugak onartzen baditu” EMAKUNDE

Prestakuntza Sendoa



Gaurko

- EUSKAL GIROAN
- INGELESA 4 URTETIK
- GIRO ATSEGINEAN

eta

- HEZKUNTZA PROIEKTU AURRERATUA
- AZKEN TEKNOLOGIEKIN
- GIZA BALOREETAN OINARRITUTA
- EUROPARA ZABALDUTA

Biharko



ZUBAURRE



elgoibarko ikastola

ermuaran bide 7 • tel. 744441- 20870 elgoibar • elgoibar@ikastola.net





NIEVES LOIOLA

Oroitzapenak

Orain hastera noan lana ez da nire ohiko lanbidea, baina hitz eman dut eta zerbait idaztera noa. Ez dakit nola aterako zaidan baina hor doa...

Zer ipini pentsatzen ari nintzela, nire ohe ondoan daukadan mahaitxoan aurkitu nuen koaderno zahar bati begira hasi nintzen. Han idatzita dauzkadan pilo bat gauza guztien artean honako bertso hau ikusi nuen:

“Gaur goizean pasa det
ikararen marra
Andrea han zebilen
tirri ta tarra
Gosaria prestatu
ez zegoen txarra
Azkenean esan dit
adio senarrak
Musu bat suharra
Haretzek zun garra
Barreneko harra
Zure irrifarra
Horixe da inporta
zaidan bakarra”

Bertso hau irakurri eta gero zera pentsatzen hasi nintzen. Zergatik gauza eder horiek asmatzeko gai diren bertsolariak, eta eskenatokia edo mikrofonoa utzi eta gero, hain arruntak diren hizketan. Batzuetan pentsatzen dut sekulako aktoreak direla, barakatuko didazue baina ni erromantiko hutsa naiz.

Gauza hauek gogoratzean nire gazteta-ko oroitzapen batzuk etortzen zaizkit burura. Orain “telenobela” deitzen zaion horre-

lako zerbait egoten zen orduan, baina irrati-tiz. Han egoten ginen egunero astelehenetik ostiralera bitartean, ordu erdi bat inguru, belarria pega-pega eginda irratitari. A zer nolako hizketa, nolako jardunaldiak, txukunak eta maitagarriak, protagonistak izugarritzko ahotsa edukitzen zuen, eta guztiok txunditurik egoten ginen. Baina nola ahotsa entzuten zen bakarrik, bakoitzak bere zalduna imajina-tzen zuen, eta nirea ikaragarria zen. Begiak itxi eta han ikusten nuen

egundoko mutila, ile hori eta begi urdinekin, irradian esaten zituen gauza berak neroni esaten. Baina ametsa zenez, noizbaiten esnatu behar. Horrela egun batean, aldizkari bat hartu nuen eta han zetorren nire irratinobelako protagonista hura, “Teófilo Martínez” deitzen zela uste dut. Hura desilusioa! Gizon edadetu bat zen, nahiko burusoila eta itsusia. Han


bukatu ziren nire amets eder haiek.

Kontu hau dela-eta lotu ditut bi gai hauek, bertsolariak eta irrati-nobelako protagonistak. Bertsoetan izugarritzko gauza ederrak esateko gai izaten dira, baina gero beraikain aurrez aurre jartzen zarenean, “Teófilo Martínez”ek bezalako itxura eduki ez arren, nire desilusioa antzerako izaten da.

“Begiak itxi eta han ikusten nuen egundoko mutila, ile hori eta begi urdinekin, irradian esaten zituen gauza berak neroni esaten”

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidar Elustondo, Jon Eugi,

Aintzane Garate,

Jon Garate, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Miriam Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loliola,

Ongarri Zine Kluba,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteberu, Leire Urkidi, Iban Urizar.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



... Ama Lurra defendatzeagatik

Argi dago bai Nafarroako Gobernuak eta baita espainiarrak ere beraiei onura egiten dietenean erabiltzen dutela legea, probetxuzko zerbait atera dezaketela ikusten dutenean, alegia. Alabaina, legez kanpoko helburu bat dutenean alde batera uzten dute lege hori, Itoitzen egin nahi duten birrinketa kasu.

Gauden garaian egonda, jadanik 1996ko apirilaren 6an izandako sabotaiaren jakinaren gainean egongo zaretela suposatzen dugu, hau da, birrinketa hori galarazteko "Itoitzekin Solidarioek" gauzatu zuten sabotaiaren jakinaren gainean. Ekintza honengatik, AMA LURRA BABES-TEAGATIK, sabotaiaren hura aurrera eramanez kide bakoitzari zigor hauek leporatu nahi dizkiete: Nafar gobernuak 19 urte, Fiskalak 11 urte, UTE Itoitzek 3 urte, Uraren Aldeko Plataformak 3 urte eta Estatuaren abokatuak beste 3 urte.

Honen guztiaren aurrean Elgoibarko Zazpiki Irratiak bere elkartasuna adierazten du zortzi auziperatuekin eta beraien aurka martxoaren 9an, 10ean eta 11n egingo den epaiketa fartsa salatzen du. Era berean, datorren larunbatean, martxoak 14, arratsaldeko 17:30ean Iruñeko autobus geltokitik irtengo den manifestaziorako deialdia egiten die elgoibartar guztiei.

Epaiketa fartsarik ez!

Zazpiki Irratia F. M. 107.6

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

◆ Herritar batek deitu digu Hirigintza buruari honako galdera hau egiteko eskatuz: **“Donostian etxebizitza zaharretan igogailuak egiteko dirulaguntzak daudela irakurri dut egunkarian. Elgoibarren horrelako laguntzarik lortzerik ba ote dagoen jakin nahi dut, etxebizitza askotan igogailua jartzeko go-goia baitago”.**

Jose Mari Oruesagastik esan

digunez, Donostiako zenbait etxebizitzatan igogailuak jartzeko laguntzak egon badaude, baina **laguntza hauek Udalak berak sortutakoak dira, ez Eusko Jaurlaritzak edo Aldundiak emandakoak.** Beraz, Elgoibarko Udalak ezin du inondik lortu diru partidarik zeregin horretarako. Beraz, igogailua jartzeak dakartzan gastuei norberak egin beharko die aurre”.

KEXAK

◆ Mutiko bat etorri zaigu esateko “oso gaizki” iruditzen zaiola **“Udalak dirua gastatzea King Kong-eko estatua jartzen herriko parkeak konpondu gabe dauden bitartean.** Leku-Ederreko parkea, adibidez”.

TXALOKAK

◆ Parkeak konpondu gabe daudela kexatzen etorri den mutiko berak **Udala txalotu nahi du, “Urasandiko parkea azkenean konpondu dutelako eta San Frantzisko iturria berriez bere lekuan dagoelako”.**



◆ Eider Azkunagak **karnabaletan bere kartera topatu eta Udaltzaingora eraman zuen pertsona txalotu nahi du.** “Ez nuen uste kar-

tera azalduko zenik eta benetan harritu ninduen Udaltzaingora eraman zuen pertsona horren zulentasunak. Eskerrik asko, benetan”.

BAI, ESAN?



Paula Pelaz
Emakumearen eskubideen aldeko langilea

Martxoak 8, Emakumeen Eguna. Gizon eta emakumeen artean oraindik ere badirela ezberdintasunak azaltzeko data da. Aste honetako deiaren protagonistak luzaroan dihardu zeregin honetan. Ea zer dioen **Paula Pelazek.**

- **Paula, zergatik eta noiz hasi zinen emakumearen aldeko langintzan?** - Hogeita bost urte baino gehiago izango dira gai honetan sartu nintzela. Sasoi hartan ni neu eta herriko beste emakume batzuk Euskal Herrian zegoen emakumeen mugimendu bateko kide egin ginen. Zergatik?. Elgoibarren ez zegoen ezer arlo honetan eta lanean hasi ginen. Hitzaldiak, martxoaren 8rako ekintzak etab. antolatzen genituen.

- **Aktiboan jarraitzen duzu?** - Emakumeen martxa jarraitzen dut baina ez nago oso sartua. Hala ere oraindik asko dagoela egiteko uste dut. Edozeren gaitetik emakumeok pertsona izan behar dugu, ez gizona bezalakoa edo gehiago, gu geu izan behar gara. Askotan ez gaituzte pertsona bezala ikusten. Lanean adibidez. Etxeko lanak ez du gaur egungo gizartean baliorik. Gainera, emakume askok etxean eta kanpoan egiten dute lan. Gizonak parte hartu behar du etxeko lanetan, emakumearen lanari zor zaion errekonozimendua aitortuz.

- **Zerbait lortuko zen.** - Belaunaldi gazteetan aldaketa bada-goela uste dut. Gertatzen dena da, rolei dagokienean, amek eta orokorrean gizarteak, banaketa oso zorrotza egin izan dutela semeen eta alaben artean. Gaur egun mutilek etxean parte hartu behar dute. Baina ez obligazioa delako, horrekin irabazten aterako direlako baizik, solidarioagoak sentituko direlako.

- **Zein izan dira urte hauetan emakumeak izan dituen lorpenak?** - Hitz batean labur daiteke: askatasuna. Horixe da lorpenik handiena. Gaur egungo emakume gazteek askatasuna dute zer izan nahi duten erabakitzeko: zer ikasi, zein lanbide izan,... Bikotearen arteko gauzetan, gazteek ere beste jarrera bat dute. Guri, ordea, ezkontzeko, seme-alabak izateko eta etxeaz arduratzeko hezitu zitzaigun. Bikotearen arteko harremanak gaizki badaude, faktore askok baldintzatzen gaituzte erabaki bat hartzeko.



I. URTEURRENA
1997ko martxoaren 1ean, 33 urte zituela hil zen NIEVES ASTIGARRAGA URIAren oroimenez URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan larunbatean, hilak 7, arratsaldeko 19:30ean.
Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Futbola, gizonezkoen gauza?

Aspaldikoa da futbola. Ingelesek hamaika hamaikaren kontrako kirol hau asmatu zutenetik, mundu guztira zabaldu da baloia porterian sartzea helburu duen kirola. Eta gizarteko beste arlo askotan bezala, futbola gizonezkoei lotuta egon izan da batez ere. Orain gutxi arte, futbola gizonezkoen koto erretserbatua zela esan dezakegu. Baina, hemen ere aldaketak ikusten hasi gara. Emakumeak ere hasi dira eurentzat hain arrotza den munduan hanka sartzen.

14 eta 24 urte bitarteko 20 neskak osatzen dute C.D. Elgoibarko nesken futbol taldea. Astearte iluntzean Mintxetan izan ginen beraiekin, entrenatzen hasi baino lehen. Oso gustuko duten kirola izateagatik aritzen dira futbolean, “debate asko egoten dia gure artian Real, Athletixa eta Barça dala eta ez dala”. Hala ere, badute beste arrazoirik, “gure artian dauan girua, eta, gainera, bide batez, kirola eitzen dou”.

“Mari-mutilak”

Batez ere pertsona nagusiek ea neskek futbolean noiztik dabiltzan galdetzen dute harrituta. Familian bertan entzun dituzte komentarioak, “batzuetan esaten dizute neska baten labadoria ipintzen eta fragaua eitzen jakin bihar

dabala, futbola mutilena dala”. Baina orokorrean jendeak ondo hartzen dituztela onartzen dute eta kirol hau praktikatzegatik “mari-mutilak” direla aspaldiko kontua dela uste dute. C.D. Elgoibarko gainontzeko taldeekin harreman onak dituztela esan digute, “sekula ez dou euki arazorikan”. Hori bai, partiduak ikustera jende gutxiago joaten dela eta kexu dira, “segun ze partido dan jende gehixo hurreratzten da baina normalian familixakuak eta nobixuak izaten dia jarraitzailiak”. Taldeak 5 urte ditu eta denbora honetan batzuek laga eta berriak hasi dira. Lagatzearen arrazoi bat, esan digutenez, “nobixuakin hastia” izaten da baina beraiek ere ez dakite zergatik gertatzen den hori.

Etorkizunik ez

Roberto García eta Alberto Hernandez dira Elgoibarko nesken futbol taldea entrenatzen dutenak. Biek jokatu izan dute futbolean eta neskekin oso desberdina dela aitortu digute, “mutilek gehiago bizi dute futbola, behar bada etorkizuna izan dezaketela ikusten dutelako, hau da, profesional modura aritu daitezkeela. Nesken kasuan horrelakorik ez dago eta beste jarrera batekin etortzen dira entrenamendueta”. Roberto eta Albertoren ustez neskenentzat afizioa da. Hori bai, oso harreman berezia sortzen da guztien artean, “askotan beraiek nahi dutena egiten duzu. Korrika egiteko esaten diegu eta berehala hasten dira kexatzen.... “. Gainera, neska hauekin, eskolarteko jokoetan hasi ziren, “hazten ikusi ditugu eta horrek asko eragiten du. Beste gauza batzuen artean, zailagoa egiten

da neskei gogor egitea, bronka bat botatzea...”. Pozik daude taldea nesken maila altuenean dagoelako, “nahiz eta aurten oso gaizki goazen”. Hori bai, herriko neska guztiak animatu nahi dituzte futbol taldean parte har dezaten.

Eibartarrak

Elisabeth Ibarak 16 urte ditu eta Evelyn Santosek 14. Biak Eibartarrak taldeko jokalaria dira. Txiki-txikiak zirenetik, kopinak baino nahiago zuten baloiarekin jolastea, eta lagunekin ezin izaten zuten, aitarekin eta anaiarekin ikasi zituzten futbolaren arau eta martingalak. Hasi zirenean, futbola mutilen kirola zela entzun behar izan zuten baina bi neska hauek burugogor heldu zioten futbolari. Elisabeth aurrelari-erdilaria da eta Evelyn erdilaria. Astean hiru aldiz izaten dituzte entrenamenduak, “mutilen antzekoak izaten dira baina guk indar eta abiadura gutxiago dugu, beraz, joko ere desberdina da”. Elisabeth-ek Espainiako Sub 18 selekzioan jokatu izan du eta bien helburua, Elisabeth eta Evelyn-ena, Absolutuan aritzea izango litzateke.

Arbitroen jarrera

Lidia Fernandezek 25 urte ditu eta Yolanda Mateosekin batera hasi zen Urki futbol-taldean. “Eskolarteko jokoetan hasi nintzen futbolean eta gustatu egin zitzaidanez jarraitu egin nuen”, adierazi digu. Kontatu digunez, behin baino gehiagotan, futboleantzatzen duela esatean jendea harritu egin izan da, “neska bat futboleantzatzen da, baina berari ez zaio batere inporta. Hori bai, ez zaio gustatzen nesken partidua ikustera joan eta “goazen barre





C.D. Elgoibarreko nesken futbol taldea 97-98 denboraldian.

piska bat egitera” esaten dutenen jarrera. “Arbitroek ere ez gaituzte serio hartzen. Zelaian gertatzen diren gauza asko ez dituzte pitatzen, tarjetak gutxi ateratzen dituzte... Badirudi uste dutela ez dakigula ezer eta edozer egin dezaketela”. Lidiak eskumako hegalean jokatzeko du eta bere ezaugarriak abiadura eta indarra dira. Berarentzat futbola asteko tentsio eta agobioak askatzeko era oso ona da, “entrenamenduetara joateak batzuetan perezak piska bat ematen du baina gero hain ondo geratzen zara merezi duela”. Hala ere, aurten lagatzeko asmoa duela aitortu digu, “25 urte ditut eta nahi eta nahi ez adin batetik aurrera igerrri egiten da”.

Espainiako Absolutoan

Yolanda Mateos 26 urte ditu eta bera da futboleko goren iritsi den neska elgoibartarra. Txikitan, ahal zuen guztietan, baloia hartu eta jolasean ibiltzen zen, “mutilek sekula ez ninduten baztertu neska izanagatik. Alderantziz, taldeak egin behar izaten zirenean futboleko jokatzeko, ni izaten nintzen aukeratzen zuten lehengoetakoa”.

Egun batean, iragarki bat ikusi zuen Eibarren nesken futbol taldea sortu nahi zutela. Yolanda berehala animatu zen. Garai hartan inguruan zegoen futbol talde bakarra zen Eibarko Urki, gaur egun Eibartarrak dena. Gauzak dezentente aldatu dira, “hasi nintzenean bi maila zeuden eta bakoitzean 6 talde. Orain, aldiz, bost maila daude eta bakoitzean 15 talde”.

Oso garbi du nesken eta mutilen futbola desberdina dela, “mutilek indar gehiago dute eta pase luzeak egiten dituzte. Guk, ordea, ez dugu hainbeste indar eta pase txikiagoak egiten ditugu. Gurea baloiarekin jokatzeko da batez ere”. Gertatu izan zaio euren partiduak ikusten jendea aspertu egiten dela entzutea baina normalean asko errespetatzen dituzte. “Gehien-gehien, futboleko jokatzeko duten mutilen artean igarri dut neskena bigarren mailako kirola izango balitz bezala tratatzen dutela”.

Profesionalak

Espanian ez dago nesken futbol talde bakarra jokalariek profesionalak osatuta, “Espainiako taldeetan ez da ezer ordaintzen. Ni Espainiako Selektzio Absolutoan nago eta han dietak ordaintzen dizkigute”. Atzerrian gauzak bestelakoak dira. Nesken futbola profesionalizatua dago. Hemen futboleko jokatu nahi duen emakume batek, bere lanbidea izan behar du eta futbola afizio modura. Atzerrian, aldiz, futboletik bizitzea posible dute emakumeek.

Yolandaren helburua datorren urtean jokatuko diren Mundialetara eta 2.000. urtean Sidneyn izango diren Olinpiadetan parte hartzeko aukera izatea da, “maiatzean jokatuko ditugu klasifikatzeko partiduak. Ea ongi ateratzen den!”. Dena dela, futbolari esker herrialde asko ezagutzeko aukera izan du Yolanda: Eslovaquia, Alemania, Portugal, Noruega, Suedia, Ingalaterra, Ukraina eta abar. Ez da gutxi!



Malte Ansola
(Eibartarrak taldekoa da baina gau egun Manchester-en dago ikasten)



Elisabete Ibarra



Lidia Fernandez

“Neskek ez dute etorkizunik ikusten futboleko eta afizio modura hartzen dute”. Entrenatzaileak

“Arbitroek ez gaituzte serio hartzen”

Lidia Fernandez

“Atzerrian nesken futbola profesionalizatua dago”

Yolanda Mateos



Yolanda Mateos




Evelyn Santos

Zer egiten duzu buzoiko propagandarekin?



PATRICIA MEMOR
14 urte, ikaslea

Begiratu eitzen dot ia zeri buruzkua dan. Gero basurara botatzen dou baina behin edo behin balio izan digu zeozertarako. Ez jata inporta publizidadia jasotzia.



HERACLIO MOYA
60 urte, jubilatua

Gehienetan begirada bat botatzen diot ea zerbait interesgarria dagoen eta bestela bota egiten dut. Ez zait inporta publizitatea aurkitzea buzoioan.



RAUL SARMIENTO
23 urte, mezularia

Etxera eraman eta gehienetan irakurtzeko ohitura izaten dut, ea ofertaren bat dagoen ala ez... Publizitatea egiteko modu ona dela uste dut.



PEDRO M. GISA SOLA
37 urte, mekanikoa

Gehixenak zuzenian zakarrontzira juten dia. Atentzio gehixen erosketako ofertak ematen die eta premixua tokau jatzula esaten dabenak zuzenian botatzen ditzut.



ITZIAR ETXABE
44 urte, dendaria

Askotan papelerara botatzen ditzut zuzenian, baina irakurri eta interesgarriak badia gorde eitzen ditzut. Gehixegi botatzen dabe, batez ere fetxa konkretuetan.



M. CARMEN LEÓN
32 urte, etxeoandrea

Zeri buruz den begiratzen dut, ea interesatzen zaidan zerbait agertzen den. Ez dit trabarik egiten eta gainera jendeari lana ematen dio.



karkizano

San Frantzisko 12-14 - Tel: 74 05 49



Arrieta

San Bartolome, 18
Tel. 74 08 49



ANCHUSTEGUI ^{sa}

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel: 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

POL-POL

T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAXA

ISPILUARI BEGIRA



*Elena
Lobete*

Ingeles irakaslea

- **Zein da zorientasunaren giltza?** - Bizitza lasaia izatea eta familia eta lan arloetan arazorik ez izatea.
- **Zein hizkuntzatan dira politagoak maitasun deklarazioak?** - Bakoitzaren ama hizkuntzan, oso hitz intimoak baitira, bihotzetik ateratzen direnak.
- **Bizitzeko hiriburu bat?** - Donostia asko gustatzen zait. Hiri baten abantailak baititu herri izakera galdu gabe.
- **Zein hizkuntza jakin nahi zenuke?**
 - Ingelesa, gaztelera eta euskara dakizkit eta ekialdeko hizkuntzaren bat jakitea gustatuko litzaidake.
- **Gustuko hitz bat?**
 - Zintzotasunaren edukia gustatzen zait.
- **Hiztegitik kenduko zenukeen hitza?**
 - Biraoak. Hizkuntza zatartzen dute.
- **Zure burua definitzen duen adjetiboa?**
 - Etxezuloa, exigentea eta errealista.
- **Zure bizitzako lema?** - Bizitza ez konplikatzea eta nire buruarekin gustura egotea.
- **Gehien praktikatzen duzun aditza?** - Hitz egin.
- **Hitz egin ala entzutea nahiago?**
 - Biak. Entzutea asko gustatzen zait eta zoritxarrez ez dugu gehiegi egiten.
- **Zein animalia izango zenuke etxean?** - Katua.
- **Abesti bat ingelesez eta beste bat euskaraz.** - Ingelesez Leonard Cohen-en edozein eta euskaraz Imanolenak.
- **Zein da zure zintzilik duzun ikasgaia?**
 - Munduan zehar gehiago bidaiatzea.
- **Bizitzako zein arlotan asmatu duzu bikain?**
 - Ama izatea izan da esperientziarik aberasgarriena.
- **Eta suspentsorik atera al duzu?**
 - Bizi izandako esperientzia guztiek irakasten dute zerbait, txarrek ere bai.
- **Besteengan baloratzen duzun bertutea?**
 - Zintzotasuna.
- **Eta barkatzen ez duzuna?** - Hipokresia.
- **Umea zinenean, zer izan nahi zenuen haunditan?**
 - Erizaina, moja, ileapaintzailea... tipikoa.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83



I. URTEURRENA

1997ko martxoaren 2an, 75 urte zituela hil zen
CONCEPCION ODRIUZOLA SALEGIren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 7, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



● **Argeliako teknikariak IMHko formazio ikastaroan**

Argeliko 10 teknikari Makina Erreminta Institutuan kontrol numerikoari buruzko ikastaroa egiten ari dira. Teknikari hauek Argeliako gobernuko eta Lanbide Heziketarako Agentzia Nazionalako ki-deak dira. Astebeteko klaseak jaso dituzte 10 teknikariek, tornu eta fresadoreen kontrol numerikoari buruzkoak.

● **Batzar Magusia Jubilatutxean**

Jubilatu Etxeak Batzar Nagusia egingo du hilaren 11n, azteazkena. Bertan 1997ko ekitaldien memoria eta sarreraren irteeren balantzea egingo da. Batzar honetan Jubilatutxeko presidente berria hautatzeko bozketa ere izango da. Bestalde, Benidormera bidaiaren irteera datorren zapatuan, hilak 14, izango dela gogorarazi nahi du zuzendaritzak.

● **Tute txapelketa azkarra Mendi-Bide tabernan**

Dagoeneko hasita dago Santa Klara auzoko Mendi-Bide tabernak antolatzen duen tute txapelketa azkarra. 4 sari egongo dira astero. Lehenengo postuan geratzen den bikoteak bildots bat irabaziko du eta txapelketaren amaieran, bakoitzak lortu dituen puntuen arabera, honako sari hauek banatuko dira: lehen sailkatuarentzat 50.000 pta. eta bigarrena-arentzat 25.000 pta. Izena emateko 1.000 pta. eman behar dira aste bakoitzean. Txapelketa ostiraletan jokatuko da gaueko 22:45ean hasita.

Positiboa izan da GUREAN BAIren bigarren urtea

Euskararen Aldeko Hitzarmena hasi da fruituak ematen

96ko urtarrilean Elgoibarko Izarrrak martxan jarri zuen GUREAN BAI proiektuak aurrera segitzen du herriko 54 elkarte eta erakundetan euskara normalizatzeko ahaleginean. Hitzarmenaren segimendua egiteko ardura duen Batzordeak bigarren urteko balantzia egin du eta oso gustura agertu dira egindako lanarekin. GUREAN BAI hitzarmena poliki-poliki fruituak ematen hasi dela adierazi dute, nahiz eta oraindik lan handia geratzen den helburuak betetzeko. Lehenengo urtea elkarleen diagnostia egiten eta hitzarmen espezifikoak negoziatu eta sinatzen pasatu bazuten, bigarren ur-

tea, batez ere entitateen irudi linguistikoa (paperak, errotuluak, bazkide-txartelak,...) euskalduntzeko eta irakasle eta monitorea euskara gehiago erabiltzen hasteko izan da. Ondoko kuadroan bigarren urtean egindako lanaren laburpena ikus daiteke.

ERABILERA INDARTZEKO:

Irudi linguistikoa: 37 entitatetan 303 aldaketa edo hobekuntza

Entitateekin batzarrak: 16 entitateko 34 lagunekin.

Kanpo-jardueren segimendua: 20 entitateko 72 ekitaldi publikori

EZAGUTZA INDARTZEKO:

Euskara ikasten/sakontzen: 19 lagun

ESKAINITAKO ZERBITZUAK: (itzulpenak, zuzenketak, aholkuak....)

Guztira: 201 zerbitzu (iaz 107)

BATZAR/HARREMAN KOPURUA:

461 batzar guztira (iaz 310)



Segimendu Batzordeko partaideak: Alberto Iriondo, Itziar Goñi, Pello Mendizabal, Kristina Zuazubiskar, Jesus Gerenabarrena, Jon Kurutz Sasiain, Pello Arrieta eta Abel Irizar.

Enplegu politika Paco Egearen ikuspuntutik

Langabezia murrizteko lanorduak gutxitzearen aldekoa da

Paco Egea Ekonomia Sailburuak enplegu politikari buruz berba egin zuen joan den ostiralean PSEren Urasandiko egoitzan. Langabeziaren eta enplegua sortzeko egitasmoen inguruan oinarritu zen Egearen jarduna. 20 bat herritarren aurrean, Estatuan eta Euskal Herrian langabeziak azken urteotan izan duen bilakerari buruzko xehetasunak ematen hasi zen. Ondoren, Ekonomia Sailak prestatu duen 10 puntuko egitasmoa azaldu zuen. Batetik, enpresen hobekuntzarako langileen partehartzeak duen garrantzia azpimarratu zuen. "Antolakuntza sisteman eta produkzio prozesuan ezinbestekoa da langileen ahotsa aintzat hartzea". Beste batzuen artean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailak Gobernu Zentralari egingo dion erreklamazioa aipatu zuen. "Enpresa batek langile bakoitzarengatik 0,7 ordaintzen dio INEMi. Diru hau formaziorako izan ohi da eta guk diru hori

gestionatzeko eskubidea erreklamatzeko diogu Gobernuari". 35 orduko lanasteari buruz, Egeak esan zuen, "dagoeneko Euskal Herriko enpresa askotan 35 ordu inguru egiten da lan. Gure proposamena haruntzago doa. Langile batek urtebetean egiten dituen lanorduei %10a kentzea da asmoa, baina kenketa bost urteko epea pasatu ondoren egingo litzateke".



Karakaten airea sortzeko 25 aparailu jartzeko asmoa dagoela salatzen du Gazte Asanbladak

Gazte Asanbladak jakitera eman duenez, Irukurutzeta eta Karakate bitartean, “4 kilometrotan zehar 25 airesorgailu jarri nahi dituzte. Dorre bakoitzak 60 metrotik gora neurtzen ditu (antena berriak baino zerbait gutxiago), 50 tonako pisua eta 3 metroko diametroa dute. Oinarrian, berriz, 100 metro karratuko hormigoizko euskarriak dituzte”. Gazte Asanbladak emandako datuen arabera, 50 eta 250 tona bitarteko garabiak beharko dira muntaketa lanetan. 40 metrora 53 dezibeliotako zarata sortuko litzateke eta 400 metrora 42 dezibeliotakoa. “Milioika metro karratuko eremu naturala lur industrial bihurtu nahi dute, bertako natura eta ondare etnografikoa hondatuz”. Proiektuaren atzetik Iberdrola, BBV, Gamesa eta beste zenbait daude Gazte Asanbladakoen esanetan. “Trikuharrien Ibilbidea dena ‘Gamesa Energia Eolikoaren Ibilbidea’ izatea onartuko al du Garate jaunak? Lizentziaren portzentaia eta airesorgailu batek urtean sortzen dituen 200.000 pta.ren truke?”. Gazte Asanbladako kideen ustean, epe motzera ikuspegi “penagarria” ageri da. “Honi guztiari Maltzaga-Urbina autopista, Abiadura Handiko Trena, Deba ibaiaren kutsadura,... gehitu behar zaizkio.” Argazkian airesorgailuak nolakoak diren ikus daiteke.



Elgoibarko emakumeak ‘Lilaton’ lasterketan

Elgoibartar hauek Donostian izaten den Lilaton lasterketan parte hartu zuten joan den domekan. Emakumeek soilik hartzen dute parte eta giroa primerakoa izan ohi da. Argazkian, atzetik hasita, Miren Amaia Arrieta (33:10), Rosa Mata (30:30), Izaskun Estibariz (26:39) eta Lourdes Zubiaurre (31:32). Aurrean, Julia Fernández (28:32), M. Eugenia González (24:18), Gloria Santiago (33:16), M. Pilar Arriola (33:59), M. Pilar Fernández (34:01), Blanca Rodrigo (33:12) eta M. Pilar de La Lama (25:22).



Ate Irekien eguna Herri Eskolan

Herri Eskolako esparrua jaigune bihurtu zen joan den zapatuan. Goizean marrazketa tailerrak egin zituzten patioan. Segidan futbol partiduak jokatu ziren eta eguerdi partera, 75 bat pertsonak lagunarteko bazkarian parte hartu zuten. Haurrak, berriz, Atxutxiamaika Begirale Taldekoekin jolasean aritu ziren. Arratsalde partean, pailazoen emanaldia izan zen eta eguna ganoraz amaitzeko, txokolata beroa dastatzeko aukera izan zuten haurrek zein nagusiek.



Gazte Asanbladako intsumituen protesta

Gazte Asanbladak antolatuta, Hainbat intsumituk protesta modukoa egin zuten zapatu iluntzean. Parodia militar bat eskenifikatu zuten, intsumituak atzeman nahian dabilen tropa bailitzan. Herrian zehar kale buelta egin zuten militar jantziekin mozorrotuta.



‘Adore’ ekimenari buruzko hitzaldia

Asteazken iluntzean Errotatzoko kideek ‘Adore’ herri ekimenari buruz hitz egin zuten Gaztetxean bildu ziren 20 bat lagunengana. Errotatzok eta beste elkarte batzuek narokotrafikoaren eta epaileen pasibotasunaren aurka jarritako salaketa-ekimen hau zertan datzan azaldu zuten.

OTSAILAREN 27ko UDAL PLENOA

● **Euskara dinamizatzailearen ordezkia**

Udalak amatasun-baja bat ordezkatzeko Euskara Dinamizatzailea behar du. Kontratua behin-behinekoa izango da. Deialdiaren oinarriak Udaletxeko Idazkaritzan jaso daitezke martxoaren 6tik 17ra bitartean.

● **Alkatearen tratua intsumituekiko salatu du HBk**

HBko Pello Mendizabalek prentsaurrekoan adierazi zuenez, "joan den otsailaren 27an Gazte Asanbladako kideen eta udaltzainen arteko istiluek ez gaituzte harritzen. Alkateak ez zuen intsumituen mozioa aintzat hartu, ezta eurekin biltzeko eskakizunari ere erantzunik eman. Garatek gogoan izan behar luke Elgoibarren dagoneko 20 intsumitu epaitu dituztela, eta derrigorrezko soldaduzkaren desagertzea euren lorpena dela". Garatek plenoan izan zuen jarrera itxia eta ezkorra kritikatu zuen. *Ekaineko proiektuaren aurkezpenean, "alkateak ez zuen informaziorik eman". Plenoan ez ezik, gainontzeko gaitan ere Garatek ez duela sekula ezer esaten salatu zuen. "Ez du informetzen ez batzordeetan, ez plenoan". OTARI buruz, esaterako, "Garatek ez du aipatu sekula Txankakuak 1.300 sinadura aurkeztu dituenik eta Sigmako lurrei buruz ezertxo ere ez dakigu". Azkenik, Udala informazioa bideratzeko prentsa zerbitzua kontratatzea ere "Garateren erabakia" izan dela azaldu zuen Mendizabalek, "hilero 58.000 pta.ko kostua duen zerbitzua inorekin kontsultatu gabe kontratatu du".*

Gazte Asanblada eta Udaltzaingoaren artean tira-birak izan ziren

Gazteek Elgoibar herri intsumitu izendatzeko mozioa gai-ordenean ez sartzea salatu zuten

Joan den ostiralean izan zen 1998 urteko estreina-ko plenoa. Udalbatza normaltasun osoz hasi zen baina hiru gai inguru aztertu eta gero, pleno aretoan dozena bat gazte sartu ziren eta pankarta bat zabaldu zuten alkatearen eta zinegotzien aurrean "Intsumisioarekin zaudete ala Ejerzitoarekin?" lemarekin. Honen aurrean, sei udaltzain pankarta kendu eta gazteak aretotik ateratzen saiatu ziren baina ez zuten lortu.

Gazte Asanbladako gazteek aipaturiko plenoan Elgoibar udalerrri intsumitua izendatzea eskatzen zuten mozio batean baina Gilermo Garate alkateak puntu hori gai-zerrendan ez sartzea erabaki zuen. Alkatearen esanetan, "arauen arabera, mozioa alderdi politikoen izenean aurkeztu behar da eta intsumituek herritar baten izenean aurkeztu zuten". Hori dela eta, pankarta zabaldu eta txilibituekin txistu egin eta aulkiekin zarataka hasi ziren. Une horretan, udaltzainak sartu ziren pankarta kentzeko asmoarekin baina tira-biren ondorioz gazte batzuk lurrean amaitu zuten arren, udaltzainek ez zuten lortu gazteak aretotik ateratzea.

HBko hiru zinegotziek euren tokiak laga zi-



gazte asanblada

Tira-birak izan ziren unea jasotzen du argazkiak.

tuzten egoera ikusita baina alkateak jarraitzea erabaki eta idazkariaren hitzak ondo entzuteko megafoniaren bolumena igotzea eskatu zuen, nahiz eta zarataren zarataz ia ezinezkoa izan gaiak argi eta garbi jarraitzea.

Ekain II proiektua

Gai-zerrendako lehenengo gaia Ekain II proiektuari buruzkoa zen. Gogoratu, aipaturiko proiektuak Deba Beheko eskualdean ibilbide turistikoa egitea duela helburu,

Ekain kobako margoen erreproduktzioan oinarritua. Gai honen inguruan HB, EB-IU eta PP alderdiek alkateari gaineratu zioten inolako informazio tekniko-ekonomikorik ez ematea. Arrazoi horrengatik, HB eta PP abstenitu egin ziren eta EB-IUk aurka botatu zuen. Hala ere, EA, EAJ-PNV eta PSEren aldeko botuei esker, Elgoibarko Udalak Ekain II proiekturako 2.800.000 pta. ematea onartu zuen, 1.000 pta.ko 2.800 akzio erosiz.



Ekain II proiektuaren maketa.

PEDRO ERKIAGA:

“Behixek pertsonei pasatzen diuen gaixotasunak kontrolauta daude”

32 urte dituen eibartar hau al baitaria da. Lehen ere ekarri izan dugu gure arte-ra bere lanbideari buruz zenbait gauza ezagutzeko Aste honetan behi kanpainari buruz hitz egiteko dugu diogu. Izan ere, bi urtean behin izaten den kanpainaren bidez behiek eduki ditzaketan zenbait gaixotasun kutsagarri kontrolatu nahi da. Hona hemen datu gehiago.

- Zer da behi kanpaina?

- Behixetatik pertsonetara pasa daitezkeen lau gaixotasun kontrolatzeko eitzen da: tuberkulosixa, bruselosixa, leukosixa eta perineumonia. Bi prueba eitzen dia, bata narrukua da eta bestia odolekua. Nahiko errez kutsatzen dian gaixuak dia.

- Zergatik bi urtean behin?

- Lehenengo aldiz oin dala 20 urte inguru ein zan eta gero urtero errepikatzen zan. Baina gaixotasuna nahiko kontrolauta zauala ikusi zanian, bi urtian behin

eitxiakin nahikua izango zala eta holaxe laga zan. Oin esaten dabe igual hiru urtian behin eingo dala.

- Gaixotasun arriskutsuak al dira?

- Oin dala 20 urte bruselosixa baserritxar askok eta beterinarixo danak pasatzen zeben. Odoletik pasatzen da eta lehen askotan guante gabe eitzen zanez lan eta kontakto haundixa zauanez, berehala harrapatzen zan. Arriskutsua da ze, esate baterako, gaixotzen zian beterinarixuak euren andrei pasatzen ziuene eta hauek esteril geratzeko arriskua zaken. Horregatik beterinarixo zahar askok seme bakarra dake edo ez dake semerik. Dana dala oin oso kontrolauta dao.

- Kanpainari esker?

- Batez ere. Gainera, behixak saldu edo erostera kuan ere kontrola eskatzen da eta oso erregulauta dao dana. Normalian zeozer sartzen bada kanpotik datozen behixekin izaten da. Baina, hemen bezela, Kantabrian, Asturias, Leon, Burgos eta leku horietan oso kontrolauta dao. Gaixotasun horiek ez dia desagertuko, horregatik kontrolau ein bihar dia.

- Zenbat behi pasatzen dituzute Deba Behean?

- Deba Behean 5.000 buru daude. Hilabete eta erdiko behi danei eitzen jakue pruebak, dan-danei. Hiru-lau beterinarixo gera eta nahiko ne-

kosua izaten da, ze inguru honetan baserri txiki asko dao eta oso sakabanauta. Errezaua izango zan talde haundiko tokixetan lan eixia baina batera eta bestera ibili bihar izaten gera, egunian igual 25 baserri pasatzen ditxugu. Gainera, behixak barruan daozen garaixa aprobetxau nahi izaten dou, udia ailegau aurretik. Oin, datu guztixak ordenadorian sartu bihar ditxugu eta lan astunaua da. Lehen guk dana eskuz apuntatzen genduan eta beste pertsona bat egoten zan dana ordenadorian sartzeko baina aurren hasi gera sistema berri honekin eta gelduaua da, ze askotan ni azkarron nixe ordenadoria baino.

- Probetan positibo ematen badu behi batek, zer egiten duzue?

- Narruko prueban positibua eman badau, 45 eguneko epia eman eta berriz eitzen jako pruebia. Berriz ematen badau positibua, behixa markau eta sakrifikaue ein bihar da. Odolekua bada ikusi bihar da ze tipokua dan eta horren arabera erabakitzen da zer ein.

- Baserritarra esku hutsik geratzen al da?

- Ez, Diputaziuak subentziuak ematen ditxu. Behixak 200.000 pezeta balio badau 120.000 pezeta inguru jasotzen ditxu. Baserritxarrak galera haundixaua da baina gitxienez zeozer jasotzen dabe.



Gaztagintza

Gaztaren kontsumoak gora egin omen du. Izan ere, gaur egun harategi, denda txiki eta supermerkatu guzti-guztietan aurki dezakegu gazta, hainbat eta hainbat klase desberdin gainera. Hil honetan gaztagintzari buruzko zenbait pista ematea erabaki dugu eta horretarako, Elgoibarren aipaturiko prozesua ondo baino hobeto ezagutzen duen baserritar batengana jo dugu, Jesus Ansola, Mauxitxa baserrikoa.

Garai batean gazta egiteko prozesua hasieratik bukaerarte eskulana omen zen, hau da, den-dena, ardia jaistetik hasita, eskuz egiten zen. Gaur egun, badira eskuz egiten jarraitzen dutenak baina produktzioa handia den kasuetan batez ere, gero eta makinaria ugariagoa dago. Guztia, gaztagintzaren prozesua erraztu eta arintzeko.

Jesusek kontatu digunez, “ardixak jestedo makina rotatibo bat dao, buelta-bueltan ardirak josten ditxuna. Alde batetik sartu eta bestetik ardirak jetsita ertetzen dabe, kate bat bezelakua da”. Makina horrek zirkuito itxi batean tanke batera pasatzen du jasotako esnea. Gainera, zirkuito horrek berak esnea garbitu egiten du izan ditzakeen bakterio txarrak desagertaraziz.

Bi hilabete kamaran

Tankeak esnea 4-5 °-tan mantentzen du eta hortik aterata, bonba baten bidez beste kuba batera pasatu eta gazta gehitzen zaio esnari. Hurrengo pausoa gaztaren mamia txikitzea da, hau ere makinaz, eta ondoren, gazta egiteko mamia eta gatz-ura banatu egiten dira. Gazta egiteko mamia moldeetan sartzea da jarraitu beharreko hurrengo pausoa eta, ondo-

ren, moldeak prentsatu behar dira. Garai batean gazta eskuz prentsatzeko bazen ere, gaur egun makina oso aproposak daude horretarako. Prentsan 4 eta 6 ordu bitartean mantendu behar izaten dira moldeak eta hortik ateratakoan, gatz-uretara botatzen da gazta. Gatz-uretan 12 orduz mantendu behar da gazta, eta gero, haizeak eman behar dio, azala gogortu arte. Azkenik, gazta kamaran sartu eta pare bat hilabete mantendu behar izaten da dendara eraman edo kontsumitu arte.

Eskuz eginda bezain onak

Jesusen ustez gaur egun makinaz egiteak ez du esan nahi gazta lehengoa baino eskasagoa denik, “alderantziz. Lehen dana eskuz eitzen zanian, ardira txabolan jetsi eta baldietan sukaldaria eruan eta lantzen hasi arte, tenperatura aldatu eitzen zan eta horren arabera ez zauan jakiterik gaztaia zelakua urtengo zan. Oin, en kanbio, dana kontrolatu eitzen da eta gazta guztixak berdintsuauak dia, eta lehen bezain onak”.



Goitik hasita: artaldea, gaztaren mamia txikitzeko kuba, prentsa eta gazta.

MAUXITXA baserria

Arriaga auzoan gora joanda dago Mauxitxa baserria. Mauxitxa bi gauzagatik da ezaguna batez ere: gazta eta izen bera daraman herriko txaranga. Izan ere, Jose Alberto Ansola, Mauxitxa txaranga zuzendaria, aste honetan orri honetara ekarri dugun baserrian jaio zen. Mauxitxakoko baserrietik bizi dira, gazta egiteko bereziki. Jesus Ansolarekin hitz egin dugu. Hara kontatu dizkigunak.

Mauxitxa baserriak 300 urte inguru omen ditu. Gaur egun Ansolatarren 8. belaunaldia bizi da bertan eta aurretik Uribesagastitarrak izan ziren jabeak. 1994an baserria txukuntzeko garaia bazutela eta, obrak hasi zituzten eta berehala konturatu ziren onena baserri osoa bota eta etxe berria eraikitzea zela, toki eta neurri berean. Gaur egun etxe berri-berrian bizi dira eta ganadua eta ardiak gordezko pabilioi handiak dituzte.

Mauxitxako gazta

Jesusek ondotxo gogoratzen du nola aldatu diren baserriko kontuak bera umea zenetik gaur egunera. "Orduan gurian egoten zian 6 bat behi eta hamar bat txahal eta 70 ardi inguru. Ardixak beti egon izan dia gurian gaztaia eitzeko. Baina bizimodu oso diferentia zan. Gastuak ez zian oin modukuak, ezta ingresuak ere. Beste bizimodu bat zan. Astian behin juten zan kalera astuakin.... Arrautzak eta eruan eta haura salduta etaratako diruakin erosketak eitzen zian. Justu-justu etarutzen zan bizimodua, baina ondo".

Mendian lanean

Aita gaixotu eta baserriko lanak egiteko gai ez zenean hasi zen Jesus buruari bueltaka, ea zer egin zitekeen pentsatzen. Baserrietik bizi nahi zuela bazekien, baina, era berean, esplotazioa beste era batera planteatu beharra zegoela ikusi zuen. Hasteko, ardi kopurua igo behar zen eta beste zenbait inbertsio ere egitea komeni zen. Baina, horretarako dirua behar zen eta Jesusek zenbait urtez mendian lan egitea erabaki zuen. Aurreztutako diruarekin hasiko zen beharrezko lanak egiten baserriari martxa berria emateko. Eta hala egin zuen, bost-sei urtez mendian jar-



Ardiak jetsi

Goizeko 8:00etan jaiki eta gaueko 22:30ak arte izaten da lana Mauxitxa baserrian, "beti dao zeozer eitzeko, nahiz eta oin asko aurreratu dan eta makinia sartu". Gaur egun ardiak jesteko makina dute, "lehen ere izan genduan baina ez ginan ondo konpondu. Aurten jarri dou berriz, ikusiko dou zela ibiltzen geran. Neretzat mutikua zeranian hasitxa baldin bazau-de eskuz jesten ardixa ez da hainbesteko lana izaten. Ohitxu eitzen zera eta makiniakin edo eskuakin ein ez da horrenbesteko aldia neretzat".

dun zuen, beharrezko dirua bildu arte. Gaur egun 500 ardi dituzte.

Genetika zaindu beharra


Neguan izaten dute lanik gehiena, batez ere ardiekin. "Lelengo bildots jaixotzia, gero berriz, genetikia zain-zia komeni da, aharia zein ardiekin jartzia komeni dan... Dana eruatzen da kontrolpian. Ez jakue librian lagatzen oso inportantia dalako dana ondo eruatia kalidadia mantendu nahi bada". Jaiotako bildotsen %25a Mauxitxan bertan geratzen da eta gainontzekoa saldu egiten dute. Inguaruotan hauek dira ardi kopuru handina dutena nahiz eta, Jesusek esan digunez, "Euskal Herrixa badauden 1.000 buruko artaldiak ditxuenak. Batez ere zentralera esnia saltzen dabenak izaten dia. Nik nahixao dot ardi gitxio eukitzia baina gazta eitzia, horrek marjen gehixen ematen dau, rentabliaua dala pentsatzen dou. Hori bai, garbi dao gaur egunian baserrixan bizitzeko biharrezkua dala buru asko eukitzia".

Gustura bizi da Jesus, "nik ez nuke

ofizianako lanagatik aldatuko sekula". Urtean zenbait egun jai hartzen ahalegintzen dira, "baina sekula ezin dozu ahaztu etxekua, ardiak.... Deskantsau bai, baina ahizterik ez dao".

MAUXITXA

- **Auzoa:** Arriaga
- **Bizilagunak:** Eugenia Juaristi, 67 urte; Jesus Ansola, 41 urte; Rosa M. Salegi, 38 urte; Leire Ansola, 16 urte eta Iñaki Ansola, 13 urte.
- **Lur hedadura:** 42 hektarea propio eta beste 20 hektarea errentan.
- **Esplotazioa:** 12 behi larre eta okelatarako, 100 txekor, 500 ardi eta 12 ahari.



Ibilbidea

■ **1** Irteera puntua Ermuko Sallabente auzoa da. Aixola-Errekako bidea jarraituz, Eitzako auzorantz abiatuko gara.

■ **2** Eitzako plazatik Bilboko norabidean trenbidea jarraituko dugu Telleria baserria aurkitu arte, Zaldibarko mugaren inguruan. Oinez ordu erdi ibili, pinadi batean sartu eta aurrera jarraituko dugu, bidea bitan zatitu arte. Bertan eskumarantz joko dugu eta pinuek margotuta dituzten gezi txuriak jarraituko ditugu.

■ **3** Urtea auzoan pista nagusiena jarraitu eta 10 minutora 634 errepide nazionalera jaitsiko gara (Ermua-Zaldibar). Lehenengo enpresaren atzeko aldetik ezkerreko bidea hartu errepidea zeharkatu eta...

■ **4** Ermua-Mallabia bidera aterako gara. Ondoren, 500 metro gora igo Microdeco enpresara iritsi arte (Ermuko mugaren in-

guruan) eta bertan dagoen muga gurutzatu gabe, hesia zeharkatu eta eskumara dagoen bidean dauden marka txuriak jarraitu.

■ **5** Mallamendi gainera iritsiko gara. Seinalizaturako bidezidorra jarraituz, abereentzako hesiak gurutzatu eta Hanbreko bidera jaitsiko gara.

■ **6** Eskumara dagoen bidea hartu eta hilerrira jaitsiko gara. Ezkerretara dagoen pista jarraituz gailurrera iritsiko gara Artamendirako norabidean. 150 metro gorago pista utzi eta bidezidorra jarraituz pinadian barneratuko gara. Eskuman, 200 metro gorago, iturria dago. Ezkerretik joanez gero, Errekaldean izango gara.

■ **7** 300 metro aurrerago "Mañe"ra ailegatuko gara.

■ **8** 2 ordu eta 45 minutuko ibilaldia egin eta gero Urko Goiko baserrira iritsiko gara. Bi hesi igaro eta ezkerretarantz segituz, hainbat txabolen ondotik pasa eta gero Hirimugarrerantz abiatuko gara.

■ **9** 721 metroko mendi gailurrera iritsiko gara.

■ **10** Eskuin aldeko tonorra jarraituz, Urkorako bidea hartu. Urkotik bidezidorrean behera abiatu eta bidean Elorreta Goikoa eta Elorreta Behekoa baserriak daude.

■ **11** Ermua eta Eibar arteko muga ezkerreko baserriaren kortan dago. Eskumakoak taberna du. Bidean aurrera eginez eta asfaltatuta dagoen pistatik 200 metro beherago jaitsiko gara bidegurutze bat aurkitu arte. Ezkerreko bidezidorra jarraitu eta berehala Amabirjinaren irudia dago.

■ **12** Pinadian aurrera marka zuriak jarraituz, Kariagaina mendira iritsiko gara, Eibar, Zaldibar eta Ermuko muga zehazten duen mugarritik oso hurbil. Maldan behera jarraituz iritsiko gara Sallabente auzoko trenbidera. Trenbidea pasatu ondoren irteera puntuan izango gara, lau ordu eta erdiko ibilaldia egin eta gero.

Kortuan izatekoak

- A.** Eitza auzoan astoprotatarako plaza txikia eta errota zaharra daude. Kilometro eta erdira Eibar eta Ermuko herriak hornitzen dituen Aixola-Errekako urtegia dago.
- B.** Urteako lehenengo baserrian iturri bat dago eta garai batean idi probetan jarduten zuten.
- C.** Urkotik jaistean, Elorreta Beheko baserria pasata, Ama Birjinaren irudia dago, Eibarko motorzaleen zaindaria da.
- D.** Urteamendiko gainekaldean herriko azken ariztegiatako bat dago.
- D.** Kariagaineko mendi bizkarrean gerra zibilean erabilitako lubakien arrastoak daude.

Iturria: Deba Deheko gida turistikoa.

Maite Solozabal elgoibartarrak 31 urte ditu eta Euskal Filologia ikasketak amaitu ondoren EHUK antolatutako Itzulpengintza masterra egin zuen. Orduetik hona hainbat lan burutu ditu. Besteak beste, euskara klaseak eman izan ditu, Gipuzkoako Foru Aldundian ere aritutakoa da; IVAPen bi urte eman zituen itzulpen beka bati esker; Madrileko Gobernuko ordezkari izan da, baita Donostiako enpresa pribatu batean ere. Gaur egun Bakun enpresan ari da lanean. Momentuz hiru literatura liburu itzuli ditu eta epe laburrera DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutako literatura liburua argitaratuko du, Markinako neska batekin elkarlanean egin.

MAITE
SOLOZABAL

“Itzulpengintza hizkuntzari tripak etaratzia da”

– **Kurrikulum mardula duzu. Nola hasi zinen itzulpengintzan?**

- Neri itzulpengintza pilobat gustau izan jata beti, hizkuntzakin jokatzia, hizkuntzari tripak etaratzia. EHUK bi urteko itzulpengintza masterra antolatu zabanian izena eman naban. Batez ere gazteleratik euskerara itzultzeko prestatu gintxutzen nahiz eta alderantziz ere preparau eta, usitez baitxa ingelesetik euskarara ere.

– **Zer da itzulpengintza?**

- Itzulpena eitxerakuan jende asko ez da konturatzeten testo hori beste batzuek irakurri bihar dabela eta ulertteraza izan bihar dala. Neretzako hori da arazo haundixena, ze euskarazko itzulpen askotan antzematen da atzetik gaztelerako

testua. Itzultzailiak mezua eman bihar dau. Irakurliak ez dau igarri bihar itzulpena dala.

– **Nondik abiatu behar da itzulpen ona egiteko?**

- Neretzat bi bide daoz. Bata formazioa, hizkuntza ondo ezagutzia eta prestakuntza ona eukitzia. Beste bat, sena eukitzia, ondo idaztia. Eta belarrixa. Nik beti, batez ere itzulpen literariuetan, zeozer itzuli eta gero altuan irakurri izan dot. Belarrira gaizki ematen badia aldatu eitxen dot.

– **Haur eta gazteentzako liburua argitaratu dituzu.**

- Bai. Nik danetik ein dot, administrazio eta enpresa pribatuentzat itzulpen teknikuekin hasi eta baitxa literatura lanak ere. Gehixen gustatzen jatana literatura lanak itzultzia da. *Bakun* enpresan

1996an hasi nitzan eta denbora honetan hiru literatura liburu itzuli ditxut: bata, Juan Farias idazle galiziarraren “Iratxoak” ipuin bilduma. Bestia, Eleanor Coer-en “Sadako eta paperezko mila kurriloak” eta hirugarrena, Paul Van Loon holandesan “Argi superdetektibe”.

– **Hezkuntzari zuzendutako lanak ere egin izan dituzu.**

- Bai, DBHrako Fisika eta Kimikako liburuaren itzulpenian parte hartu naban, Historia eta erlijioko lau liburuen estilo zuzenketare in naban, Gazte literatura liburuaren itzulpenian parte hartu naban eta DBHko 3. mailarako Hizkuntza eta Literatura liburuaren bi unitate ein nitxun. Oin, Markinako neska batekin batera DBHko 4. mailarako Literatura liburu prestatu dot. Lan gogorra izan da, nere erronkarik haundixena, baina gustura geratu gera. Laster izango da merkatuan.

– **Zure etxean egiten duzu lan, ez?**

- Bai. Bulegua Arruan dakagu eta sarri juten gera, talde-lan haundixa da eta. Baina gero bakoitzak bere etxian ordenadoria daka eta gure kontura eitxen dou lan. Disziplina haundixa bihar da baina ondo moldatzen naiz. Lan hau definitibua izango dala uste dot, lana gustatiaz gain lantaldia ere oso jatorra dalako.

– **Ez al duzu pentsatu zuek liburu bat idaztea?**

- Jende askok animau izan nau baina sekula ez naiz horretan jarri. Oin arte beti mugatu izan naiz beste batzuek idatzitakua itzultzerara. Hala ere, ez dot alde batera lagatzen.

BESTEAK ESANA

“Lagun ona, langilea eta euskaltzalea; lana eta zaletasuna uztartzen jakin du.”

NEREA LODOSO, laguna



●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Ane Urkia Arrizabalaga (Otsailak 8)
- Jon Aranbarri Rumayor (Otsailak 9)
- Jon Urruzola Pagazartundua (Otsailak 25)
- Ainhoa Mugerza Arizmendiarieta (Otsailak 26)

●●●● EZKONTZAK ●●●●

- Jose Maria Gil Fernández eta Lidia Sarmiento Verdeja (Otsailak 14)
- Francisco José Romero Pozo eta Amaia Alamino Sanchez (Otsailak 14)
- Migel Angel Dakinta Rodriguez eta Ana Isabel Korta Aierdi (Otsailak 21)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Valentina Txurruka Arozena, 79 urte (Otsailak 5)
- Jacinto Osoro Alberdi, 71 urte (Otsailak 12)
- Andresa Larrañaga Aranberri, 79 urte (Otsailak 13)
- Rafaela Mendikute Gabilondo, 92 urte (Otsailak 14)
- Florentino Idigoras Alzelai, 73 urte (Otsailak 17)
- Pedro Zubiaurre San Martin, 75 urte (Otsailak 20)
- Lucia Uria Loiola, 84 urte (Otsailak 20)
- Isidro Osoro Arano, 75 urte (Otsailak 22)

Luis Gurrutxaga San Martin

(1912-1981)



- 1912ko abuztuaren 19an jaio zen Uztarri etxean, San Migel bailaran.
- Gurasoak Txomin Gurrutxaga 'Olazarra' eta Maria San Martin 'Soarte' ziren. Hiru anai-arreba ziren, bera gazteena.
- Eskola publikoetan eta gauez Arte eta Ofizioen eskolan aritu zen. Geroago Eibarren eskope-tagintza ikasi zuen.
- Soldaduzka Hondarribin egin zuen eta bertan ikasi zuen hain gogoko zuen auto-gidatzea.
- 1936ko gerratean herritik irten zen. Markinako *Esperanza* tailerrean lan egin zuen eta lantegi honetako gerentearen gidaria izan zen.
- 1938an Sabina Muguruzarekin ezkondu eta 4 seme-alaba izan zituzten.
- 1940an, bera jaio zen lekuaren ondoan, (bertan Euskal Herriko probalekurik entzutetsuena egon zen) 3 anaiek Pepe Aranarekin batera, lantegia sortu zuten. Herriko lehenengoetariko fresadorak euren egin zituzten. *Esperanza* tailerreko nagusia ere urte askotan joan zen euren tailerrera lan bereziak egitera.
- Luisek oso gogokoa zuen kirola, esku pilota batez ere. Ezkondu aurretik eta ondoren ere bai, partidu asko jokatu zituen. Edade dexterekin futbolearen parte hartu zuen. "Lodi eta argal"en partiduetan hain zuzen, lodien taldekoa zen.
- Makina bat mokadu eder egin zituen Luisek anai eta lagun artean. Sinesmeneko gizona zen, familia girokoa, irrifartsua eta nerbio handikoa.
- Lantegia desagertu zenean, kooperatibista egin eta tornulari lanean aritu zen *Karakaten* lehenengo, *Eguzkin* gero, eta *Danobaten* azkenik. Langile amorratua zen.
- Benetako herrizalea zen Luis. Lana zela-eta, bidaia dexente egin zituen erbesteko erakusketetara.
- 1981eko azaroaren 12an hil zen 69 urte zituela.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa Klara, 16 20 870 ELGOIBAR
 Tel.: (biltegia) 74 13 27 (etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (mobila) 908 77 07 01



A

rostegi baserrian aterata dagoen argazki benetan polit hau **Marisol Etxaniz**ek ekarri digu. 75 bat urte izango dituela esan digu. Argazkikoak **Migel Etxaniz** eta alaba dira, **Paulina Etxaniz, Arostegi baserrikoak**.

Aita-alaba baserriko lanetan dabiltza. Lurra zapaltzen ari omen dira, horretara-

rako idi pare ederra eta alper-harria erabiltzen ari direlarik (Paulina eserita dagoen harria da).

Begiratu iezaizue jantziei. Paulinaren abarkak, blusa zuria, amantal beltza eta zapia buruan. Argazkilaria zetorrela eta, litekeena da argazkirako apropos jaztea. Migel, berriz, laneko arrokekin dagoela nabari da.

Argazkiak erakusten duen panorama ere ez da makala. Sallobente bailara osoa ikusten da. Atzean ageri den baserria Agarre dela esan digu Marisolek, eta atzerago, San Migel bailara.



Martxoak 8



**LEIRE
GONZALEZ**
16 urte

1- Ez, nik karrera egingo dut hasiera batean. Nere helburua lan egitea da eta familiagatik ez nuke utziko dena, nahiz eta egunen batean umeak izatea ere nahi dudan.

2- Gauza berezia da, maite duzun pertsona batekin galdu behar duzuna.

Mutilek, ordea, zenbat eta lehenago galdu, hobe. Zentzu horretan, mutil askorekin ibiltzen den neska emagaldua da eta mutilak, aldiz, ondo ikusita daude.

3- Berdinak gara baina neskek beharbada argiagoak. Notak behintzat hobeak ateratzen ditugu.

4- Ez dut uste mutila izateak abantailarik duenik. Neskek daukagu beti azkenengo hitza, bikote kontuetan behintzat.

5- Neskek zerbait nahi dugunean badakigu matxismoa gure alde erabiltzen, lan fisikoa egin behar denean esaterako.

6- Aurpegira, ea guapoa den. Gero, majoa bada hobe, noski.

7- Ikasketez eta mutilek, nor gustatzen zaigun, begiratu gaituen ala ez... Konfidantza izaten dugu gure artean edozeri buruz berba egiteko.



**AITOR
AURREKOETXEA**
20 urte

1- Bai, ez jatan inportako. Nahiko ohituta naio etxeko lanak eitzera.

2- Ez da galtzeko prisarik

euki bihar. Pareja aurkitzutatuan politxa izango zan. Igual 25 urtetik gora konplejua euki laike.

3- Neskia edo mutila izatia berdina da, ez daka bentajarik.

4- Neskek umiak eukitzen ditzue eta politxa izan bihar da baina ez dot faltan botatzen.

5- Gauza batzuetan ondiok piskat matxistak gera, zenbait komentario... Hori aldatzeko denboria biharko da.

6- Hasieran ia politxa dan baina gero beste gauza batzuk baloratzen dia: elkar ezagutzia, antzekuak izatia, atsegina...

7- Futbolaz eta kotxez aparte, neskez.

ROBERTO CORDÓN
18 urte



1- Ez, ez nuke lana lagako. Beharbada langabezian egongo banintz...

2- Ez dauka garrantzi berezirik. Neskentzat desberdina da.

3- Ez dut uste desberdinak garenik. Beharbada mutilok indar gehiago dugula.

4- Ez dut uste neska edo mutila izateak abantaila gehiago edo gutxiago dituenik.

5- Gauza batzuetan nahiko matxistak gara. Nesken futbola, adibidez, ez dago hain ondo ikusita.

6- Fisikoa kontuan hartzen da baina batez ere atsegina izatea baloratzen dut.

7- Kirolaz batez ere.

**NEREA
DOMINGUEZ**
16 urte



1- Nik lana egin nahi dut baina ere baita umeak eduki eta beraien heziketa zarduratu eta nola hazten diren ikusi. Bi gauzak egin daitezke.

2- Mutilek birjinitatea galtzeko presa dute baina nesken kasuan gauza inportantea da eta ez da azaltzen den lehenengoarekin galdu behar.

3- Batez ere etxeko lanei dagokionean, emakumeok askoz

gauza gehiago egiten ditugu.

4- Gizon izateak ez du abantailarik.

5- Batzuetan bai, nire inguruan entzun izan dut emakumeen tokia sukaldea dela. Niri ere gustatzen zait mutilek atea irekitzea eta horrelako gauzak...

6- Begietan fijatzen naiz hasieran eta gero umorea izatea baloratzen dut asko.

7- Mutilei buruz! Zein mutil duzun gustukoen, zerbait esan dizun ala ez... Mutilek beste tonu batean hitz egiten dute: nolako ipurdia duen, zelako ona dagoen...

30 lagun dabiltra espeleologiari buruzko III. ikastaroan

4. ediziorako izen-ematea zabalik dago

Leizarpe Espeleologia Taldeak 1997ko urte amaieran eman zion hasiera Espeleologiari buruzko 3. ikastaroari. Euren esanetan, "ikastaroak uste baino arrakasta handiagoa izan du. 30 bat lagunek eman dute izena eta benetan pozik gaude ikastaroa nola ari den irteten". Ikastarokideak Euskal Herriko hainbat bazterretatik etorritakoak dira, nahiz eta gehienak Deba Beheko bailarakoak izan. Dagoeneko bi jaitsiera egin dituzte kobazuloetara: lehendabizi Ernio tontorreko Sopite kobazulora eta ondoren, Lekeitioko Ilaminak izeneko kobara.

Hemendik aurrera klase teorikoak hasiko dira: bertikalen azterketa, topografia, fotografia, ... Ikastaroa beste hiruzpalau hila-betez luzatuko da. Leizarpekoen esanetan, "jasotzen



Aurtengo ikastaroan parte hartu duten 30 ikastarokideak.

duten formazioa nahiko konpletoa da. Ikastaroan parte hartu duten guztiek espeleologo lanetan jarduteko moduko jakintzak dituzte eta, hauek asko, gure inguruetako mendi eta kobazuloen ikerketan buru-belarri hasiko diren esperantza daukagu".

IV. ikastaroa

Dagoeneko 98rako IV.

ikastaroan izena eman daiten. Urte amaierara arte ez da ikastaroa hasiko baina eskaria oso handia denez eta lekua oso murriztua, lehenbailehen izena emateko gomendioa luzatu nahi dute Leizarpekoek. Interesa edukiz gero, 908 31 35 53 zenbakira deitu eta datuak utzi. Edo gutun bat idatzi Pedro Muguru-zako egoitzara zuzenduta.

KIROL ALBISTEAK

● Eskolarteko atletismoa Mintxetan

Bihar, hilak 7, Eskolarteko Kirolen atletismo probak jokatu dira Mintxetan goizeko 10:30etik aurrera. Alebin eta infantil mailetan altura, luzera, 60 metro, 80 metro, 600 metro eta 4x60 erreleboetako probak izango dira. Igandean, berriz, Zornotzako Euskadiko Kros Txapelketan korrituko du Ana Etxaniz elgoibartarrak Gipuzkoako selekzioarekin.

Bestalde, martxoaren 1ean Lazkaon izan zen eskolarteko Gipuzkoako Kros txapelketan 13 elgoibartarrek hartu zuten parte. Partehar-tzaile guztien artetik batek ere ez zuen podiumera igotzerik izan. Ondoen sailkatu zena 6. postuan iritsi zen Ana Etxaniz izan zen. Ikastetxeka, Pilar ikastetxea 3. lekuan sailkatu zen eta klubon sailkapenetan, Mintxeta Atletismo Taldea hirugarren geratu zen.

GIPUZKOAKO KROS TXAPELKETAKO SAILKAPENAK

ALEBIN MUTILAK

- 9- Julen Merino
- 19- Mikel de Pablo
- 20- Aitor Arrillaga
- 47- Iker Arrillaga
- 81- Aitzol Urain
- 94- Eneko Zubiaurre

ALEBIN NESKAK

- 24- Dorleta Aranberri
- 26- Nerea Zubiaurre
- 41- Saioa De Pedro

INFANTIL NESKAK

- 6- Ana Etxaniz
- 21- Alaitz Merino
- 37- Nuria Revuelta

KADETE MUTLAK

- 22- Jesus Jurado

EMAITZAK

Futbola

Haundi 1 - Osasuna 0
 Elgoibar 3 - Aurrera Ondarroa 0 (2. erreg.)
 Pedrusko 5 - Alde Zaharra 0 (2. erreg.)
 Elgoibar 2 - S. Inazio 1 (E. L. jub.)
 Hamaika Bat 1 - Elgoibar 2 (1. jub.)
 Antoniano 1 - Elgoibar 2 (Kad.)
 Elgoibar 2 - Real Unión 1 (Inf.)
 Eibartarrak 5 - Elgoibar 0 (Neskak)

Eskubaloia

Leizaran 5 - Unceta Elg. 25 (Kad. nes.)
 Trapagaran 22 - Pneumax Elg. 19 (Kad. mut.)
 Pagoaga Elg. 18 - Hernani 10 (Jub. nes.)
 Trapagaran 26 - Tecnomeca Elg. 26 (Jub. mut.)
 Elgoibar 23 - Urnieta 24 (Seniorrak)

Idarraga Kafeak I. saria

1- Miguel Diaz	35
2- Eneko Barreneitxe	32
3- Gorka Guarrotxena	26
4- Karlos Madina	26
5- Iker Atxabal	22
6- Ander Iruretagoiena	19
7- Jabier Gurrutxaga	19
8- Gaizka Lazarabaster	19
9- Koldo Agirregomezkorta	17
10- Unai Aranburu	16
11- Joseba Igartua	15
12- Xabier Alonso	9
13- Jon Argoitia	9
14- Mikel Elkoro-Iribe	9
15- Igor Prieto	8
16- Aitor Trebiño	8
17- Mitzel Badiola	6
18- Aiert Zinkunegi	5

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 7
 12:15 Elgoibar - Martutene (Jub.)
 17:00 Elgoibar - Anaitasuna (Neskak)
 Igandea, 8
 12:00 Elgoibar - Aitzgorri (Alebinak)
 16:30 Elgoibar - Tolosa (Kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 7
 16:00 Pneumax - Usurbil (Kad. mut.)
 17:30 Tecnomeca Elg. - Usurbil (Jub. mut.)
 19:00 Unceta Elg. - Urnieta (Kad. nes.)

Atletismoa, Mintxetan

Larunbata, 7
 10:30 Eskolarteko Atletismoa

Eskolarteko Kirolak

Larunbata, 7
ESKUBALOIA
 Benj. mut. (Kiroldegian)
 11:00 Ikas Bulls - Ikas Bihurri
 11:30 Herri Otsokak - Ikas Gorri
 12:00 Pilar Lakasitos - Ikas Tximista
 Benj. nes. (Kiroldegian)
 9:30 Ikas Hartz - Ikas Bizkor
 10:00 Ikas Beleak - Pilar Usoak
 10:30 Pilar Txiki - Ikas Ortazar

ARETO FUTBOLA

Aleb. mut. (Ikastolan)
 10:30 Pilar All Star - Ikas Inpernu
 11:15 Ikas Gol - Ikas Espabidubi
 12:00 Pilar Flash - Mendaro B
 Aleb. nes. (Herri Eskolan)
 10:30 Pilar Kas - Ikas Txingor
 11:15 Pilar Girls - Ikas Trumoi
 12:00 Ikas Laino - Ikas Planet

SASKIBALOIA

Inf. mut. (Ikastolan)
 9:45 Pilar Ajax - Ikas Axelko
 11:15 Ikas Bolita - Perraubekoak
 Inf. nes. (Ikastolan)
 10:30 Ikas Trons - Ikas Gorribeltz
 12:00 Ikas Spanky - Blablatarrak



Altxor eder bat

Joxe Arratibel fraile beneditarrak umetan baserriko sutondoan entzundako istorioak bildu ditu “Kontu zaharrak” liburu zoragarri honetan. Arratibelek gurasoei entzun bezala jaso ditu kontuok eta horrela, darabilen euskarak ahozketasunaren xarma guztia gordetzen du. Bai edukiagatik eta baita erabilitako euskara jatorragatik ere, liburu hau benetako altxor ederra dugu.

Edukiari erreparatuta, hasieran egilearen bizitzaren berri ematen duen sarreraren ondoren, euskaldunok gure mitologia ezagutzeko aukera dugu liburuan agertzen diren kontakizunetan. Badira esate baterako, Etsai Zaharra protagonistatzat dituzten istorioak, euskaldunentzat gaizkiaren pertsonifikazioa den pertsonaiarenak. Horrez gain, “Lapurren leizea” izeneko narrazioa daukagu, zeina “Ali Baba eta 40 lapurrak” errelato arabiarraren euskal bertsioa den. Badago, baita ere, euskal ikutuz azaltzen den “Blanca Nieves” izenburuko beste bat. Azkenik, ez dira falta sorginen kontuak, euskaldunen mundu-ikuspegia erakusten duten beste hainbat istoriorekin batera.

Jon Eugi

Martxoak 8, Emakumearen Eguna Haizea Emakume Taldeak kafe-solasaldia egingo du herriko artistekin



Maskaradak eskainiko duen “El cartero de Neruda” saioa gaztelaniaz izango da. Argazkian, lanaren une bat.

Igandean, hilak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko da mundu osoan. Elgoibarren ere, egun hori modu berezian ospatuko du Haizea Emakume Taldeak. “Emakumeen Nazioarteko Astea” izenpean, hiru egunetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Bideo-forum batekin eman dio hasiera Haizea Emakume Taldeak “Emakumeen Nazioarteko Asteari”. Atzo, hilak 5, “El futuro es mujer” izeneko 40 minutoko bideo emanaldia izan zen Kultur Etxean Rosa Caballero pedagogo orientatzailearen azalpenek launduta.

Maskaradaren “Nerudaren postaria”

Haizea eta Udalaren eskutik, azken al-dian Euskal Herriko txoko guztietan arrakasta handia izan duen antzezlanaz gozatzeko aukera izango da, gaur, hilak 6. Gaueko 22:30ean hasita, Maskarada antzeztaldeak “El cartero de Neruda, Ardiente paciencia” antzezlana taularatuko du. Emanaldia gaztelaniaz izango da. Antonio Skármeta idazlearen teatorako obra honetan agertzen diren pertsonaietako bat Pablo Neruda poeta da. Antzezlanaren izenburua bera ere, “Ardiente paciencia”, Nerudak Nobel saria jasotzerakoan aipatu zuten Rimbaud poetaren hitzak dira. 1973an Pinochet-en diktaduratik ihes egin nahian, Txiletik Alemaniara alde egin zue-

nean idatzi zuen Skármetak antzezlan hau. Ondoren pelikula bat egin zen antzezlana abiapuntu hartuta eta harrera ezinhoba izan zuenez, nobela bat idaztera animatu zen Skármeta idazlea. Maskaradaren lana azken nobela honetan dago oinarrituta. Lan dokumentatua izate aldera, Maskaradakoek Txileko erakunde eta pertsonaia ugarirekin kontaktatu zuten Nerudaren inguruko gorabeherak eta testiunguru historikoa ahalik eta fidelena izan zitezen. Emaizta begibistakoa da.

Kafe-solasaldia

Emakumeari zuzendutako programaren azken ekitaldia, bihar, hilak 7, izango da. Haizeako kideek “kafe-solasaldi” izena jarri diote Kultur Etxeko sotoan izango den musika, bertso eta bestelakoan emanaldiari. Talde honetako kideen esanetan, “herriko emakumeentzako tarte bat sortzea da gure asmoa, kafe baten bueltan eta musika emanaldiak tartekatuz. Hitz egiteko eta Haizea osatzen dugunokin kezka eta bestelakoak elkartrukatze giro aproposa izango da”. Gaueko 22:30ean eman-go zaio hasiera kafe-solasaldiari eta honako hauek hartuko dute parte: Nathalia abeslaria, Irati eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak, Balenziano ahizpak trikitiarekin, eta herriko hainbat emakume hizlari modura. Haizea Emakume Taldeak herriko emakume guztiei ekitaldira joateko gonbita luzatu nahi die.

Emakumeen Topaketak

Kafe solasaldia



Mari Juli Arregi



Edurne Lasa



Ainhoa Agirreazaldegi



Balenziano
trikitilariak



Irati Agirreazaldegi



Nathalia

EGITARAUA

Martxoak 6, ostirala
22:30 "El cartero de Neruda"
antzerkia Herriko Antzokian

Martxoak 7, larunbata
21:00 HAIZEAKo partaideen bilera
Kultur Etxeko sotoan
22:30 Kafea: trikitilariak,
bertsolariak, abeslariak
eta herriko
beste emakume batzuk





INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

- Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea. 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

- San Lazaro Egoitza. 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola 74 21 41
 HHI (EPA) 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea. 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español. 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

A G E N D A

7

larunbata

19:30-22:15 ZINEA
 "Dos chicas de hoy"

21:00 HAIZEAko KIDEEN BILERA
 Kultur Etxeko sotoan

22:30 KAFE-SOLASALDIA
 Partehartzaileak:
 trikitilariak, bertsolariak,
 abeslariak...
 Kultur Etxeko sotoan
 Antolatzailea: Haizea
 Emakume Taldea

22:30 KONTZERTUA
 "Etsaiak" eta "Ileon"
 Gaztetxean

8

igandea

9:00 MORKAIKOra IRTEERA eta ORIENTINGa
 Irteera tokia Plaza Handia
 Antolatzailea: Eskolarteko
 Kirol Programa
 Laguntzaileak: Morkaiko
 eta Zuhaitz A. T.

19:30-22:15 ZINEA
 "Dos chicas de hoy"

9

astelehena

19:30-22:15 ZINEA
 "Dos chicas de hoy"

12

osteguna

22:15 ZINE KLUBA
 "El prisionero de las montañas"

13

ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA
 Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
 "El prisionero de las montañas"

6

ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA
 Gaztetxean

19:00 ESKULTURA ERAKUSKETA
 Egilea: Arturo Andrade
 Kultur Etxean
 Hilaren 27ra arte

22:30 ANTZERKIA
 Antzeztaldea: Maskarada
 Antzezlanak: El cartero de
 Neruda (gaztelaniaz)
 Herriko Antzokian
 Antolatzaileak: Udala eta
 Haizea Emakume Taldea

23:00 KAFE-TEATROA
 "Pakita la del barrio"
 Gaztetxean

ZINEA



Zuzendaria: Mike Leigh.
Antzezleak: Katrin Cartlidge,
Lynda Steadman, Kate Byers.

Dos Chicas de hoy

Sei urte eta gero, 30 bat urteko bi emakume berriz elkartzen dira. Iragandako sasoiko gertaerak go-gora ekarriz, elkarrekin pisua konpartitzen zuteneko harreman berezia berreskuratzen dute. Zirkunstantzia bereziak direla medio, aspaldiko lagunekin egingo dute topo berriz.


● **Morkaikora irteera eta 'orienting' saioa Eskolarteko Kirolen barruan**

Eskolarteko Kirolen jolas programaren koordinatzaileek, Zuhaitz Astialdi taldeak eta Morkaikok lagunduta, Morkaikora irteera antolatu dute igandearako, hilak 8. Bi irteera egingo dira. Bat Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6era bitarteko ikasleentzat. Hauek gurasoekin San Migeleraingo igoko dira goizeko 10:00etarako. Bertatik Morkaiko aldera abiatuko dira lantaldeetan inguruneak aztertu, zaborrak garbitu eta beste zeregin batzuk egiteko. DBHko 1., 2. eta 3. mailakoek orienting saioan parte hartzeko aukera izango dute. Irteera puntu bat eman eta Erloko puntaraino iritsi beharko dira pista batzuk lagungarri modura erabiliz. Bukaeran luntxa egongo da. Irteera goizeko 9:00etan izango da Plaza Handian.

● **Arturo Andrader en eskultura erakusketa**

Martxo osoan zehar, hilaren 6tik 27ra hain zuzen, 41 urteko Arturo Andrade eskultore elgoibartarraren erakusketa izango da Kultur Etxean. Andrade ajustadorea da lanbidez baina duela urte batzuk, lana utzi eta egurra lantzen hasi zen. Izan ere, ajustadore lanari esker sartu zen artearen munduan. Horrela, bada, industria eta artea nolabait gerturatu eta bata bestearen

osagarri egin ditu. Gaur egun, Ermuaranbide kalean arte-tailer propioa dauka. Autodidakta dela esan daiteke eta materialei dagokienean, asko lantzen ditu: egurra, brontzea, zilarra, buztina, harria,... Oraingoan ikusgai egongo diren eskulturak harriz eginak dira. Linea modernoei erantzuten die eta gizaki eta animalien forma sinpleak dituzten irudiak dira.



● **Kafe-teatroa eta kontzertua Gaztetxean**

Gaur, hilak 6, eta bihar, hilak 7, Gazte Asanbladak antolatutako bi ekitaldi izango dira Gaztetxean. Gaur, ostirala, "Pakita la del barrio" ezagunaren "matxismoaren kontrako kantaldia" izango da gaueko 23:00etan. Larunbatetarako, berriz, gaueko 22:30ean, "Etsaiak" eta "Ileon" taldeen kontzertua antolatu dute Gazte Asanbladakoek. Antzerkia doan izango da eta kontzertuaren sarrera, berriz, 500 pta.

T R A N D A R

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
7	Etxeberria* (Santa Ana)	Escala
8	Etxeberria* (Santa Ana)	Escala
9	Bidasolo	Bidasolo
10	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
11	Anduaga	Anduaga
12	Yudego	Yudego
13	Zabaleta	Zabaleta

* (eguerdiko 2ak arte)
ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

8 igandea Zabaleta

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: S. Bordov
 Antzezleak: Oleg Menshikov, Sergei Bodrov Jr., Djemal Sikharulidze.

El prisionero de las montañas (Errusia 1996)

Kaukasoko gerra garaian, checheniar agurre batek bi soldadu errusiar bahitzen ditu bere semearengatik trukatzeko asmoz. Soldaduak mendien artean dagoen herriska batera eramaten ditu. Soldaduek herriko neskato batekin harreman solidarioa ezartzen dute. Ekialdeko istiluen begirada zinematografikoa eskaintzen du zinta honek. Poesia, baikortasuna eta naturaltasuna isurtzen duen istorioa da.

Lana

◆ **ESKAINZA** ◆

- ◆ Tabernan lan egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 74 45 34
 - ◆ Neska behar da barra eta sukaldan lan egiteko. Esperientziarekin eta ahal bada Elgoibarkoa. ☎ 74 37 60 (San Roke)
 - ◆ Neska gaztea behar da larunbat arratsaldean tabernako barran lan egiteko. ☎ 74 37 71
 - ◆ Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska behar da. **Tel: 74 38 83** (arratsaldeko 7etatik aurrera)
 - ◆ Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da. ☎ 74 45 87
- ◆ **ESKAERA** ◆
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 908 67 05 70
 - ◆ Atzerri komertzioan titulatu eskaintzen da dendari lana egiteko, umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 74 10 09
 - ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko egun osorako. Esperientziarekin. ☎ 19 21 28 (Asun)
 - ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ 74 23 90

Salerosketak

◆ **SALDU** ◆

- ◆ Anplifikadorea (400 w), Pioneer markako bafleak (180 w), J.B.L. markako buferrak (200 w) eta bolante txuria kono eta guzti (3 besokoa) salgai. Erabili gabe. ☎ 74 06 33 (Xabier, gauze deitu)
- ◆ Kamila bat eta infragorri lanpara saltzen dira. ☎ 70 26 34
- ◆ Arraunerako gimnasia makina saltzen da. ☎ 74 43 62

Etxebizitzak

- ◆ Pisia salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m² eta ganbara. ☎ 74 11 05
- ◆ Etxea saltzen da Santa Klara 26-4an. Igogailu eta altzariekin. ☎ 74 22 15
- ◆ Bikote bat bizitzeko baserri baten bila dabil Eibar edo inguruetako herrietan. Edozein egoeratan dagoen baserria interesatzen zaigu. ☎ 907 48 07 52
- ◆ Etxebizitza saltzen da Errosario 6-1ean. ☎ 70 26 34

Bestelakoak


- ◆ Ihauterietako larunbat gauean mexikar moztorroaren txapela galdu nuen. ☎ 74 02 14
- ◆ Ihauterietako astearte gauean plastiko baten barruan zegoen moztorroa galdu genuen. Marruecosetik ekarritako erropak ziren. Topatu dituenak Pitxintxura eraman ditzala.
- ◆ Otsailaren 17an urrezko pultsera galdu nuen zintzilikariekin. Saritu egingo da. ☎ 74 33 37
- ◆ Erloju baten penduloa galdu dut. Metalezkoa da eta bainu beltza du. Plaza Handitik Santa Ana kalera bitartean galdu nuen. Aurkitzen duenak dei dezala **74 26 55** telefonora, laga dezala Udaltzaingoa edo joan dadila Santa Ana 46, 1-C-ira eta Silvino Santosengatik galde dezala.
- ◆ Seilodun eraztuna galdu dut. "I" iniziala dauka grabatua. ☎ 74 27 85.
- ◆ Caritasek sukaldia, labea eta garbigailua emateko dauzka. ☎ 74 15 09 - 74 12 57
- ◆ Caritasek ume jaioberri batentzako kuna, bainera eta erropatxoak dauzka emateko. Bestetik, sukalderrako banketak edo silak hartuko litzuzke. ☎ 74 15 09 - 74 12 57

Agurrak

- ◆ Zorionak **Imanol Perezi** martxoaren 3an urteak bete zituelako. Solfeoko gelakoan partez.
- ◆ Zorionak **Nagore Aranzamendiri** hilaren 5ean 12 urte bete zituelako. Kuadrila osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Imanol Perezi** martxoaren 3an 9 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Maribel Gomezi** martxoaren 4an urteak bete zituelako. Familiaren partez.
- ◆ Zorionak **Erik** hilaren 3an 14 urte bete zenituelako. Lagun minen partez.
- ◆ Zorionak **aita!** Martxoaren 1ean urte bat zaharragoa egin zinen. Belarritik tirakada bat. Asier, Amaia eta amatxoaren partez musu haundi bat.
- ◆ Zorionak **Loinaz Polori** otsailaren 28an 14 urte bete zituelako. Aitor eta lagun baten partez.
- ◆ Zorionak **Itziar Arizmendiri** martxoaren 2an 14 urte bete zituelako. Jonathan eta Pascual-en partez.




◆ **Kristina Odriozolari** zorionak familia osoaren partez. Musu mordo bat.



◆ Zorionak **Luis Mari Orza Murguzari** otsailaren 26an 12 urte bete zituelako. Guraso, osaba eta lehengusuen partez.




◆ Super zorionak **Mireia Iriondori** hilaren 5ean 7 urte bete zituelako. Ondo pasako zenuela espero dugu. Gurasoak.




◆ Otsailaren 28an urteak bete zituen **Mireiari**: zinean lekua gorde nahi duzu urtebetetzea beste batekin ospatzeko? Zure lagun gizarajoen partez.



◆ Zorionak **Nataliari** gaur, hilak 6, 6 urte bete dituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Natalia** gaur urteak bete dituzulako tia Arantxaren partez. Eskerrik asko zure aitaxo eta amatxori nire urtebetetzean munduko oparirik politena, Nerea, ekarri zenigutelako.



◆ Bihar, hilak 7, urteak beteko dituen **Oier Araoz** zorionak troupe guztiaren partez.



◆ Zorionak **Oihana Rodri** gomezzi otsailaren 28an 6 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.




◆ Zorionak **Patxika** eta **Patxikori** hilaren 4an eta 5ean urteak bete zituztelako. Familia osoaren partez.

Agurrak



◆ Zorionak **Andoni Hernandez Egañari** gaur, hilak 6, 2 urte bete dituelako. Arreba Maria eta familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Aneri** hilaren 12an 2 urte bete dituelako. Aitonamona, guraso eta osaba-izeben partez.



◆ **Angel Quintana**. Zer espero zenuen? "La noche más loca"? Zure neska-lagun minen partez, Antonio, Esther, Mónica eta Izas-




kunen partez zorionak. Baita gela osoaren partez ere, martxoaren 2an urteak bete zenituelako.



◆ Martxoak 6: **Maria**. Martxoak 8: **Nerea**. Martxoak 9: **Koldobike**. Martxoak 11: **Ismene**. Hainbeste segidan izanda, nola ez gara akordatu? Zorionak eta musu haundi bana. Urteak betetzen ez ditugun koadrilakoan partez.




◆ Zorionak **Jonathan Martini** hilaren 5ean 12 urte bete zituelako, familia osoaren partez. Zorionak baita ere Ikastolako 6. mailakoan partez.



◆ Zorionak, **Julen**, zure urtebetetzean. Orain arte bezain zintzo eta guapo jarrai dezazun espero dugu. Idoia eta familiaren partez.



◆ Zorionak, **Julen**, zure urtebetetzean. Orain arte bezain zintzo eta guapo jarrai dezazun espero dugu. Idoia eta familiaren partez.



◆ Zorionak, **Julen**, zure urtebetetzean. Orain arte bezain zintzo eta guapo jarrai dezazun espero dugu. Idoia eta familiaren partez.



**Elgoibarko
Herri Eskola**



**Elgoibarko
Herri
Institutua**



Izatez eta jakitez hazi

Aurrematrikula: otsailaren 26tik martxoaren 11ra arte



Herri Eskola
Tel: 74 08 75
E-mail: elgoibarkoherrieskola@usa.net

Eusko Jaurlaritza

Herri Institutua
Tel: 74 02 67
E-mail: ifp.elgoibar@eaf.servicom.es

PILAR IKASTETXEA



Pilar ikastetxeko gurasoen, irakasleen eta ikasleen Elkarte Hezkuntzak,
San Viator klerigoen eskutik honako heziketa eskaintzen dizue:

EUSKALDUNA: Behar kultural eta sozialei erantzunez.

KALITATEZKOA: Erreformari egokitua.

KRISTAUA: Balore kristauak bereziki lantzen dituena.

SOZIALIZATUA: Elkarbizitzarako eta baketzerako baloreak garatzen duena.

Hezkuntza eskaintza

D.B.H. (E.S.O.)

12-16 urte

B eredu INDARTUA

LEHEN HEZKUNTZA

6-12 urte

B eredu INDARTUA

HAUR HEZKUNTZA

2-6 urte

D eredu

ESKAITZEN DIZUEGU:

■ **HEZKUNTZA ELKARTEA:** (Ikasle, Guraso eta Irakasleak) identifikatua eta partehartzailea.

■ **GELA BEREZIAK:** Informatika, teknologia, liburutegia, laborategiak, polikiroldegia, psikomotrizitate gela...

■ **EKINTZA OSAGARRIAK:** Kirolak, txapelketak, txangoak, antzerkiak,...

■ **JANGELA:** Irakasleen ardurapean.

■ **LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOA:** Bertako psikologo eta pedagogarekin.

■ **ZENTRU KONTZERTATUA:** 2 urtetik 16ra bitarteko irakaskuntza baimendua eta subentzionatua.

AURREMATRIKULA ZABALIK: otsailaren 26tik martxoaren 11ra, 16:30tik 19:00ra arte

Urasandi kalea - Tel. 74 13 31 - 20870 ELGOIBAR